

hoy escribe

J.L. Alvarez Enparanza "Txillardegi" (\*)

zer

Riga ez da Lacua

Ez dago gure herriaren anaia bizkia Ibero-Ameriketan zertan bilatu beharrik. Gure herriaren anaia bizkia, inor izatekotan, Latvija da; Letonia, alegia. Eta Eestii (Estonia) agian urruntxoago.

Hamaikatan emandako zifra batzu gogoratuz, hona hemen Latvija-ri dagozkion datu nagusiak: hedadura, 63.700 kilometro karratu (Euskal Herria hiru aldiz), jendaketa, 2.740.000 biztanle (1989). Erditsua eskas letoniarrak: etorkinak nagusi.

Baltikoko kai askotan bezala. Rigan ere kutsu germaniko nabarmena utzia zuten alemaniarrek. Baina barrukaldean eta itsasertzeko herrisketan, Latvija letoniarra zen osoki.

Rigan ez. Rigan, ekonomiki, eta demografiaren alorrean ere, alemaniarrek nagusitu ziren XIX. mendean, eta 1890 ingurura arte. Baina 1913an, eta burujabetza lortu aurretik, beraz, Rigan ere letoniarrak zeuden nagusi: 218.000 letoniar, 69.000 alemaniar.

Letonia 20 urtez, 1939ra arte, bere buruaren jabe izan ondoren, nazioaren letoniartasuna sendo zegoen: bi milioitatik (1939), %90 bat mintzo zen letonieraz.

Are gerrateko zanpaketa bi-koitza jasandakoa ere (Hitler-ena aurtenik, Stalin-ena gero) hau zen demografi egoera 1945an: 1.400.000 biztanle; eta horietan 1.170.000

lagun letoniarrak zirelarik (%83).

Marxismo-leninismoa hasi zen orduan agintzen; eta besteak beste, eta gure iker-gaiari dagokionez, honetara etorri dira:

Jendaketa (1989): 2.736.784 biztanle.

Letoniarrak.. 1.416.704 (%51'77)

Errusiarrak.. 935.150 (%34'17)

Bielorrusiarrak.. 122.050 (%4'46)

Ukraniarrek.. 94.085 (%3'44)

Eslaviar multzoa, hitz batez, %42'07; erdia ia-ia (erdiak gora industrigunetan, Riga barne). Letoniarrak arrotz bizi dira beren hiriburuan; gaur egun euskaldunok Bilbon edo Zumarragan bizi garen bezalatsu.

Perestroikaren ondorioz, Latvija bere buruaren jabe bihurtu zenean (1989-VII-28), azkartu egin zen nazio-hizkuntzaren aldeko borroka. Egia esan, Burujabetza lortu baino hilabete batzu lehenagotik, Latvija-ko erresuma-hizkuntza ofiziala bihurtu zen letoniera (1989-V-5).

Letoniarrak, errusiar etorkinen kopuru gaitza batetik, eta sovietiar armadaren iraupena bestetik, "zukurkiago" jokatu behar izan dute beste lekutan baino. (Hemen, jakina, "irracional"tzat hartuko zituzten irakurleak ongi ezagutzen dituen "racional" famatu horiek). Jose Antonio

Ardanza eta Anatolijs Gorbunov alderatzea bera ere, besterik gabe litzateke latviar buruzagia kakazta eta karkaxaztea. Otoi!

Iaz ni Rigako Parlamentuan izan nintzenez, eta jadanik sarritan kondatu dudanez, hau ikusi nuen neronen begiez: bilera letoniera hutsez egiten zela; eta errusofonoak aldibereko entzungailuak belarrietan jarrita jarraitzen zutela eztabaida...

Lacuan jai-ta-aste ikusten duguna: Recalde, Mosquera eta Buesa ordutan barrena beren entzungailuak belarritik ezin kendurik!...

Hots, joan den martxoaren 31an beste lege hertsia bat onartu du Rigako Parlamentuak: Latvija-ko *funcionari guztiek* jakin behar dutela letonieraz mintzatzen.

Erabakiaren ausartaz ongi jabeturik, azalpen hau eman zuen Gorbunov Presidentek: "nazio-hizkuntza salbatzeko, ezinbesteko ahalegin osoa egin behar duela latviar herriak"; eta lege berria xede nagusi hori mami-eraztekoan datorrela.

Tentsioa, horretara, zinez handia da Latviyan. Ez baita etorkinen kontrako borrokan gertatu den lehenengo okasioa.

Orain dela hilabete batzuz geroztik, "letoniar hiritar goa"ren lege berria eztabaidatzen hasi zenez geroztik, "diskriminazioa" haizatu dute etorkinek, eta gogor eraso dute Rigako gobernu.

Letoniar hiritar goa etorkinei emateko, lau baldintza jarri dituzte letoniarrak: 1) etorkinek sovietiar naziotasunari uko egitea; 2) Latvija-rekiko leialtasuna zin batez bermatzea; 3) hamar urtez geroztik gutxienez bizilekua Latviyan izatea; 4) letonieraz mintzatzen jakitea.

Lehenengo hiru puntuak neurtzea ez da zaila. Nola neur edo erakuts letonieraren ezagueria maila hori?

Joris Bojars-en zuzendaritzapean ari izan den Batzordeak hau proposatu zuen: "hizketarako gaitasuna" erakustea.

Alderaketarik egin beharrik ez dago.

Gorbunov abertzalea da, Ardanza ez. Rigako Parlamentua Latvija berreskuratzen eta errusiar imperialismoa ezabatzen saiatzen da azkarki; Lacua-koa ez. Lacua-koa, /c/ bai, gure herriaz trufatzen da, gure sofrikarioen, gure hildakoen eta gure ahaleginen gainean itu eta txistu egiten du. Buesa inkisidore espagnolitoa horregatik dago hor. Horregatik dago horren harro eta tinko. Gasteizkoa ez baita Rigako parlamentua, morrointxoan korta baizik.

Buesa kanpora: Noski. Baina kanpora ere beren isilkeria koldarrak bazkatzen duten *jaurlari guxtiak*.

Datorren 28an Gasteizen. Jakina.

Lotsa osotara galdu ez dugun abertzaleok hara bilduko gara.

(\* Idazlea)

edo zer

Bizkaia garbia ote?

Egungentia. Eguna urratan zuten hasi da; sargoritsua ematen du. Basoa edertuz doa. Sugandilak larrua aireztatzeko prest dagoz. Zizareak orbeletan izkututzen dira galdutako hezetasunaren bila. Euliak burrunbaka ari dira, biraka hega eginez, behiren batek jarri berriko gorotz freskuaren gainetik. Erleak lorerik lore usainka. Haizeak suabekiro astintzen ditu pinu insignisen adarrak, arrak zorabiatzen. Urtxintzak saltoka adarrez adar. Behiak marrruka belar goxoa dastatzen. Inurriak amaigabeko iladan doaz, negurako janaren bila. Ardiak beka. Zaldiak trostan. Hanka motzeko txori ar batek uiuiuika egiten du ozenki lurra hartutakoan. Ai ama lurra! hauxe bai giro osuntsua bizitza indartzeko modukoa! Hauxe ixiltasun goxoa! Hauxe bai... baina zer arrai dok'n hau? demontre! kristoren zaratots! vueltaespaña ote? Sugandilak ikaraz geldi, zizareak berdin. Urtxintza bat lurrera jausi da baita kolpe ederra hartu ere. Behiek uzten diote larrean ibiltzeari. Inurrien ilada okertu egin da. Euliei joan zaie gose nahia. Bazter batean hanka motzeko txori arrak, ordea, uiuiuika darrai oraindino, bere parteak suabeki laztantzen. Baina zer demontre da hau? Heli-koitea goitik bueltaka, zirkuloka, dabil zaratats; jarri berriko gorotz freskuaren bila ote? Basoa uniformez bere da santiamen batetan, izurritea bailitzen. Sirena hotsak nonnahi. Txakurrak usainka bazterrik bazter, zuloz zulo. Baina nortzu dira horiek? trekking-ean ez dagoz, behinik behin. Zaborrak eta zakarrak biltzen ere ez dabilta, beraz ez dira Bizkaia Garbia kanpainakoak. Gainera oso itsusi eta motzak izan behar dira, aurpegia morrozean izkutatu beharra dute eta; kilkerak izutu ez daitezten ote? Baina zertan dabilta hainbesteko algaraz? zeren bila? euren buruzagiek aspaldian galdutako materia grisaren bila akaso? Ez, dirudienez Libiako lehendakariaren bila dihardute! Baina antza denez zirrikituren batetik egin die hanka, horiek uiuiuika uzten. Eta basoa zuzpertzuz doa, berriz edertuz...

PRONTXIO

hemeroteca

¿Los vascos por qué no?

(Carlo Coccioli en la revista mexicana «Siempre», 2/IV/1992)

El sábado 15 de febrero pasado se publicó en las páginas editoriales de "Excelsior" un artículo mío titulado "¿Y a los Vascos por qué no?". Frente a la indignación mundial ante el terrorismo al que los activistas vascos recurren para obtener su independencia —con el derecho de cualquier pueblo del mundo a su independencia!— a mí me salió espontánea la pregunta: ¿Y por qué los vascos serían el único gran pueblo del planeta al que se niega lo que por ejemplo se ha otorgado a plenas manos a los pueblos, casi ignorados por el Occidente, de la evolu-

ción histórica?

No voy a repetir aquí, por falta de espacio, lo poco o lo mucho que escribí en aquel editorial. Sólo debo añadir que hay momentos en que la indignación mundial ante esas acciones cruentas, pero ellos dirían que inevitables pues no les queda otro remedio, a mí me sabe amarga, lo confieso. Habría que esforzarse un poco, pese a la sangre derramada, o quizá en nombre de tanta sangre, en comprender a los otros también; tratar de interpretarlos. Ningún país latinoamericano tendría independencia si no se la hubiesen ganado con la sangre. Por supuesto, conozco la objeción que puede hacerse: ¡Pero en ese terrorismo mueren seres inocentes! Lo sé y ello me duele profundamente. Por desgracia en cualquier lucha armada en aras de la evolu-

ción histórica mueren inocentes. Sería pues mucho más sabio que, para evitar tan doloroso derrame de sangre inocente, o no inocente, el establishment español sometiera la cuestión total independencia

del País Vasco a un referéndum exclusivamente vasco. Que digan los vascos, ¡y sólo los vascos!, si quieren permanecer con el reino de España o prefieren otra cosa. Se aclararía el gran drama. (...)



(Ferreres en "La Vanguardia")